

## EUSKARA HIZKUNTZ ESKOLA OFIZIALETAN

*Egoitza, (Bilbo), 1994.02.26*

*Andres Iñigo Ariztegi  
Patxi Iñigo Ariztegi*

### A) ZAILTASUNAK

Egitarauean ikusten ahal duzuen bezala, txosten hau bi zatitan banatua dago. Iruñeko Hizkuntz Eskolan, azken urte hauetan burutzen ari garen esperientzia baten berri emanen dugu bigarren zatian.

Baina aintzinetik, eta sarrera labur gisa, Hizkuntza Eskola Ofiziale-tan euskararen irakaskuntza prozesu osoa emateko eta, horren ondorioz, ikasleek hizkuntzaren erabilera zuzena lortu ahal izateko dauzkagun zailtasunak aipatu nahi ditugu.

Jakinen duzuen bezala, mende honen hasieran eraiki zen Madrileko Hizkuntz Eskola Zentrala. Hirurogeiko hamarkadan bertze zazpi eskola jarri ziren martxan eta, haien artean, Bilbokoa. Urte batzuk geroago Iruñekoa eta une honetan 140ren bat badira Estatu osoan.

Eskola hauen helburua pertsona helduei hizkuntzak irakastea da. Eta ematen den agiria edo titulua Espainiako Estatuan unibertsitatik aparte, hizkuntzei dagokienez, balio akademiko ofiziala duen titulu bakarra da.

Hasieran hizkuntz atzerritarrak irakasten ziren. Hirurogeita hamargarren hamarkadan eman zieten sarrera eskoletako ikasketa plangintze-tan Estatuko hizkuntzei eta, hauen artean, euskarari. Gaur egun, 140 horietako 8 eskolatan ematen da euskara: Bilbo, Getxo, Donostia, Eibar, Gasteiz, Iruñea, Tuter eta Madrilekoan.

Hizkuntz atzerritarrak irakasteko sortu ziren Eskolak, bada. Helburu hori lortzeko ezarri zen ikasketa plangintza berbera, aplikatu zitzaien ondok, batere egokitu gabe, Estatuko hizkuntzei ere, hala nola, katalan,

galego, gaztelania eta euskarari. Plangintzaren estruktura orokorra hau da: 5 ikasturte, 120 ordutakoa bakoitza, denetara 600 ordu (1).

Estruktura honek dakartzkio Euskarari muga eta zailtasunik haundienak, ez baitira berberak hizkuntza guztietan eta, are guttiago Estatuko hizkuntzen kasuan, ikasprozesuak planteatzen dituen beharrak. Adibidez, katalana ikasteko badirudi aski dela 600 ordu edo guttiagorekin, baina euskararen kasuan, eskoletako titulua edo EGA eskuratzeko eskatzen dena, askotan erran eta idatzi den bezala, beharrezkoak dira 1200 ordutatik gora.

Iruñeko Eskolak, aukera izan duenean, arazo hau planteatu dio Hezkuntza Ministeritzari, errate baterako, 1986an Valencian egin zen Hizkuntza Eskoletako I Kongresuan (2) eta lehen aipatu dudan Dekretu berria onartu baino lehentxeago, baina ikus daitekeenez gure eskariak ez zitzaizkien interesgarriak iruditu izan behar.

Gure kasuan, Nafarroako Hezkuntza Sailetik zertxobait lortu dugu eta, iaztik hasita, 600 ordutatik 900 ematera pasatu gara, h.d. bide erdi batera ailegatu gara. Baina euskara ematen den gainerako eskola ofizialtan 600 ordutako plangintzarekin segitzen dute.

Arazo hau larria da, titulua eskuratzeko eskatzen zaien maila lortu ahal izateko hartu beharko lituzketen adina klase ordu ez baitzaizkie ematen ikasleei (ikasturteak errepikatzen ez badituzte, behintzat). Eta beharrezkotzat jotzen diren klase orduak hartu gabe, nola lortuko dute titulurako eskatzen diegun hizkuntza maila edo kalitatea eta, horren ondorioz, erabilera zuzena? Oraindik gehiago erranen genuke, nola eutsi diezaiekete, bai Hezkuntza Ministeritzak bai Autonomi Elkarteetako Hizkuntza Sailek, titulurako eskatzen ari diren maila emateko gai ez diren ikasketa plangintzei beren eskola ofizial eta publikoetan?

Norbaitek pentsa lezake titulurako maila jaitsez gero arazo hau konponduko litzatekeela. Baina erabaki hau ezin da hartu bi arrazoiengatik:

a) Titulu honek irakasleei irakaskuntza euskaraz emateko atea zabaltzen dielako.

---

(1) Real Decreto 967/1988, de 2 de septiembre, sobre Ordenación de Enseñanzas correspondientes al primer nivel de las enseñanzas especializadas de idiomas. Real Decreto 47/1992, de 24 de enero, por el que se aprueban los contenidos mínimos correspondientes a las enseñanzas especializadas de las lenguas españolas, impartidas en las Escuelas Oficiales de Idiomas.

(2) Iñigo Ariztegui, A., "Los idiomas autóctonos en las Escuelas Oficiales de Idiomas: Euskara". *I. Congreso de EE.OO.II. Presente, pasado y futuro de las EE.OO.II.* Valencia, 1987, 341-355 or.

b) Bai Euskal Autonomi Elkartearen bai Nafarroan, Hizkuntz Eskoletako Agiriak eta EGA baliokideak direlako.

Azaltzen ari naizen arazoa, hasiera batean, Administrazio Zentralaren errua izan baldin bada ere, zerikusi handia daukate, gaur egun, gure Autonomi Elkarteetako Hezkuntza Sailek, Dekretu mailako arauak egokitu eta alda ditzaketelako. Eta kasu honetan, Ministeritzako guttieneko edukien Dekretuak "minimoak" markatzen dituzenez, Autonomi Elkarteetako Hezkuntza Sailek, nahi izanez gero, "maximoak" jar ditzakete edo, guttienez, minimoak hobetu.

Eta bertze arazo bat ere aipatu nahi dugu. Ez daukagu inolako koordinaziorik euskara ematen ari garen 8 eskolen artean. Nafarroako biak elkarrekin gabiltza gure lanetan, baina Euskal Autonomi Elkartearen artean badirudi ez dagoela harreman haundirik, ezta bi komunitate eta Madrilekoaren artean ere.

Gauza bera erraten ahal dugu EGA batzordeei buruz. Nafarroan, Euskaltzaindiak bere garaiaren horrela proposatu eta, Iruñeko Hizkuntz Eskolako euskara departamentua bera da EGA azterketaz arduratzen dena, baina Euskal Autonomi Elkartearen badirudi ez dagoela harremanik Eskola eta EGA batzordekideen artean eta gauza bera gertatzen da Euskal Autonomi Elkarte, Nafarroa eta Iparraldeko EGA batzordeen artean ere.

Zoritxarrez, bakoitza gure aldetik gabiltza helburu berberak lortzeko lan egiten ari garenok. Bukatzeko, eta aipatu dudan guziaren laburpena eginez, hau erranen nuke:

– Estatuko Hezkuntza Ministeritzak eta, gure kasuan, Euskal Autonomi Elkarte eta Nafarroako Hezkuntza Sailek, euskarari dagokionez, EGA maila lortzeko behar adina klase ordutako irakaskuntza plangintza ezarri beharko luketela derrigorrez eta lehenbailehen beren Hizkuntz Eskola Ofizialetan.

– Euskal Autonomi Elkarte eta Nafarroako Hezkuntza Sailetako arduradunek bideratu eta bultzatu beharko lituzketela bai eskolen arteko harremanak baita eskola eta EGA batzordeen artekoak ere.

Alde batetik, ikasprozesurako behar diren medioak jartzen baldin badira eta, bertzetik, tituluak banatzeko irizpideak elkarrekin ongi finkatu ondotik, maila berbera eskatzen bada titulu guztiak eskuratzeko, dudarik ez dago, hizkuntzaren kalitatea hobetu eta erabilera zuzenagoaren bidean jarriko ditugula gure eskuetatik pasatzen diren ikasleak.

## B) IRUÑEKO ESKOLAKO ESPERIENTZIA BATEN EMAITZAK

Iruñeko Hizkuntza Eskolara euskarazko titulua lortu nahian hurbiltzen zaizkigun ikasle libre gehienak, ikastoletan edo eskola elebidunetan ikasi dutenak dira. Gaur egun erran genezake hiru baino gehiago hala direla.

Begibistakoa da, oraindik euskaldun diren herrietako ikastetxeetatik (Sakana, Larraun, Leitzalde, Malerreka, Baztan, Bortzirietatik...) datozkigun ikasleen eta jadanik erdaldunduta dauden herri edo hirietatik (Iruñerriatik, Lizarratik...) datozkigunen arteko aldea. Alde hau erabiltzen duten hizkeran, ahoskeran eta hutsetan nabari da batipat.

Bertzalde, ikasle aunitz titulua lortu gabe gelditzen denez, azken urteetan Iruñerriko ikastetxe horietan estudiantu duen edo estudiantzen ari den ikasle andana ofizial matrikulatu da Hizkuntza Eskolan. Eta berehala konturatu ginen ikasle hauen arazoa eta beharra eta gure ikasle arruntenak desberdinak zirela. Izan ere, gure bertze ikasleek ez bezala, badakite hitz egiten eta idazten, baina bizi izan duten inguruneagatik edo erdararen eraginagatik edo dena, dela, akatsez eta erdarakadaz josia da goen euskara darabilte.

Berezitasun horiek kontuan hartuta, Iruñeko Hizkuntza Eskolak badaramatza urte batzuk, ikasle hauentzat klase bereziak eskaintzen. Eta oraindik ikastola eta eskoletako zenbait ikasle klase arruntetan matrikulatzen bada ere, gehienek klase berezi horietan matrikulatu nahi dute. Bi azkeneko ikasturteetan 75 ikasle dira plan berezi honetan ikasten ari direnak.

Eta hemen aipatu behar ditugun datu gehienak klase horien esperientziatik atera ditugu. Horrek erran nahi du, bertzerik erran ezean, emanen ditugun datuak Iruñerriko ikastola eta eskoletatik datozkigun eta Hizkuntz Eskolan ikasle ofizial diren edo izan direnengandik jasoak direla. Dena den, batzuetan euskaldun herrietako ikasleengandik jasotako en erreferentzia batzuk ere eginen ditugu.

Eta jasotako datu horiek ematen hasi baino lehen argitu nahi genuke, hemen euskararen erabilera zuzenaz ari garenez, ikasle horiek egiten dituzten hutsak azpimarratuko ditugula bereziki eta baten batek pentsa lezake, horiek baldin badira emaitzak, ikastola eta eskola horiek euskararen kaltetan ari direla. Ikastoletan lan egin izan dugunok ongi aski badakigu zenbat oztopo eta zailtasun gairitu behar izaten den euskara duintasun minimo batez irakasteko, bizi dugun ingurune erdaldunagatik alegia. Eta oraindik euskaldun edo erdi euskaldun ditugun herrietan hori gertatzen bazaigu, zer erranik ez, Iruñerrian bezala, ia-ia

erabat erdalduna den giro baten barnean, eskolatik kanpo euskaraz ia hitz bat ere entzunen eta hitz eginen ez duten giro batean.

\* \* \*

Garrantzizkoa izanagatik, ez dut gehiegi markatuko hemen ergati-boaren arazoa, ikasle berezi hauena ezezik bertzeena ere badelako. Dena den, garbi dago ergati-boaren marka ez jartzea, batez ere ergatiboa izen berezia, nominalizazioa, zenbakia edo zenbatzaile zehaztugabea denean ematen dela:

Lotsa eman zidan bainu-jantzia jaztea.

Emakume gehiago salatu beharko luke injustizia hori.

% 8 gaingitu zuen azterketa.

Gauza bera erran genezake aditza eta objektu zuzenaren arteko komunztaduraz edo zehargalderaren arazoaz. Maiz egiten dituzten akatsak badira ere, ez baitira, nire iduriko, ikasle hauen akats tipikoak, euskaraz ikasten ari diren ikasle gehinenak baizik. Edo, gaztelaniaren eraginez, objektu zuzena biziduna denean, datiboa erabiltzearena:

Amari ikusi diot.

Arrebari kotxez eraman diot.

Aurkitu behar diot neska honi.

Jakina denez, akats hau ere nahikoa hedatua dago bertze ikasleen eta euskaldunzahar aunitzen artean.

\* \* \*

Goazen bada, bertzerik gabe, nire iduriko nabarmenen diren puntuak aipatzera.

1. Oso tipikoa da baiezkotasuna adierazteko aditz trinkoari lotzen diogun *ba-* (*bai* partikulararen kontrakzioa)ren erabilera nahasia. Eta akatsa bi erataraz egiten dute, erabili behar denean, ez erabiliz eta erabili behar ez denean, erabiliz:

Duzu boligraforik? (= baduzu boligraforik?).

Dugu orri gehiago (= badugu orri gehiago).

Edo alderantziz:

Gehienak badira hilketa pelikulak eta marrazki bizidunak (= gehienak hilketa pelikulak edo filmeak eta marrazki bizidunak dira).

Gehienak badira emakumeak (= gehienak emakumeak dira).

Badu Mikel izena (= Mikel du izena).

\* \* \*

Eta bide horretatik segituz, bitxikeria hauek entzuten dizkiegu:

Badut bat bakarra egina (= bat bakarra egin dut).

Nik badut egina bigarrena (= nik bigarrena egin dut).

Badago (= bukatu dut = "ya está").

Eta Iruñerriko ikasleen artean ezezik, euskaldun herrietakoen artean ere gero eta gehiago ari zaigu hedatzen akats hau.

Aurten bertan galdera hau egin nien 41 ikasleri: Telefonoz deitzean nola galdetuko zenuke? *Hor dago Mikel?* ala *Badago Mikel?* % 65ek *Badago Mikel?* aukeratu zuten.

2. Eman ditugun adibide hauetan garbi ikusten da ikasle hauen bertze akats tipikoa hitzen ordenarena dela. Hona hemen adibide batzuk:

Agertu zen gizon bat zuena orein bat (= orein bat zuen gizon bat agertu zen).

Dituzu medio gehiago.

Da emakume bat bizi dena New Yorken.

Dira zortzi anai-arreba.

Dut koadernoia etxean.

3. Nahikoa zabaldua dagoen bertze huts aipagarria *ahalen* erabile-ra traketsa da:

Ahal dut erabili boligrafoa? (= Erabiltzen ahal dut boligrafoa?).

Ahal dut joan komunera? (= Joaten ahal naiz komunera?).

Eta jakina, ergatiboaren edo zehargalderaren edo konpletiboaren kasuan, zuzentzeko erran eta guttienez saiaturiko dira zuzentzen, baina *ahal dut joan?* en kasuan ez dakite gaizki dagoela ere.

4. *-(e)na* erlatiboa *-(e)la* konpletiboarekin nahastea:

Bada jendea bizi dela lan egiteko.

Ezagutzen dut jendea urtero joaten dela Lantzeko ihauteriak ikus-  
tera.

Bada sekta bat esan duela ez dela han behar haragirik.

Hura mina eman zidala!

Egia da akats hau ez dela ikasle hauena bakarrik, baina oso hedatua dago hauen artean ere. Eta orain dela lauzpabost urte alde haundia nabari bazen ere, akats honi dagokionez, euskaldun herrietako eta Iruñerriko ikasleen artean, azken urteotan haien artean ere hedatzen ari da.

5. Konpletiboak normalean ongi egiten dituzte, *-(e)la* morfema jartzerakoan guttienez; hala ere, baldintzetan maiztasun haundiz baldintzaren lehen partean (protasian) jartzen dute *-(e)la* delakoa, ondorioan jarri beharrean:

Amak erran dit etxean bazkaldu behar baduzula, aintzinetik deitze-  
ko.

Argi zegoen ez banuela joan behar, ez nuen ordaindu behar.

6. *Ere* lokailuaren erabilera traketsa. Lehen errandakoari gehitze zentzua emateko erabiltzen ditugun *gainera*, *horretaz gain*, *areago*, *bestalde* eta gisakoak hagitz guttitan erabiltzen dituzte. Horien ordeztu *ia-ia* beti *ere*, *ere bai*, *baita*, *ezta*, etab. erabiltzen dituzte. Hortaz, arras arrunta da esaldiak *ere (bai)* batez hastera:

Ere bai erran nahi dut...

Ere suteak direla eta, jendea kezkatzen hasi da.

Eta ere lainoa zegoen (= lainoa ere bazegoen).

Edo

Nire arrebak ere bai erosi zuen.

Lagunarekin baita ere topo egin zuen.

Gero baita infarto gehigo izan zuen.

Erloju bat eman zidan eta loreak baita.

Etxe hartan ez zen janaririk, ohea ezta lo egiteko.

Ez zuen ezagutzen ezta itxuraz.

7. Arrunt tipikoa da *hobe* adjetiboa *hobeki/hobeto* adberbioarekin nahastea:

Nire anaia oraindik ospitalean dago, baina atzo baino hobe dago.

\* \* \*

Aurten bertan 41 ikasleri, aukeran eman nizkien hurrengo bi esaldi hauek:

Gaurko ariketa atzokoa baino hobeki egin dut.

Gaurko ariketa atzokoa baino hobe egin dut.

% 55ek bigarrena aukeratu zuten eta % 45ek lehenbizikoa.,

\* \* \*

Hari berean leudeke *nola eta nolako, bezala eta bezalako* nahastea.

8. *besteren* erdarakadak. Ikasle beraiei bertze bi esaldi hauek ere eman nizkien, beren ustez ongi zegoena aukera zezaten:

Lehenngoan ez nuen klasera etortzerik izan.

Beste egunean ez nuen klasera etortzerik izan.

Eratzunak hauek izan ziren: % 62k bigarrena aukeratu zuten eta % 38k lehenbizikoa.

Eta hainbertzeko maiztasunez ez bada ere, bertze bitxikeria hauek ere botatzen dituzte:

Esaidazu beste berriz.

Bat baino gehiagotan gertatu zait hori (= behin baino...).

9. Aditz arazleak. *Arazi ez* dutela ezagutzen erran genezake; edo guttienez, ez dute erabiltzen. Hitz horren ordezt bertze perla hauek entzuten dizkiegu:

Pozoin horrek arratoiei hiltzea egiten die (= hilarazten ditu).

Nire amak eskolara joatea egiten dit (= joanarazten nau).

Horrek ematen dizu gehiago pentsatzea (= pentsarazten dizu).

Egin zion zerbait jatea (= zerbait janarazi zion).

Egin zion pistola botatzea lurrera (= botarazi zion).



Garbi ikus daiteke gaztelaniatik hitzez hitz itzultzen dutela, bere ordena eta guzi.

10. Partizipio iragana, — *-ta* morfema erantsita—, adberbio gisa erabili beharrean, adjetibo gisa erabiltzen dute, batez ere adjetibo hori gaztelaniaz partizipioa ere izan daitekeenean: "podrido", "sufrido", etab.

Sagar ustelduta jan du Arantxak.

Gizon sufrituta da Asier.

Eta horretaz gain, komunztadura pluralean eginez:

Sagar usteldutak jan ditu Arantxak.

Gizon sufritutak dira haiek.

Sar itzazu hozkailuan baba egositak.

11. *Egin* aditzaren abusua. Gero eta gehiago entzuten dira Iruñerriko ikasleen artean ezezik, euskaldun herrietakoen artean ere holako esaldiok:

Uxue egin da erori (= erori da).

Xabier egin da etorri (= etorri da).

Egiten dute zerbait jatea (= zerbait jaten dute).

Hitzaldiak egingo dira lau (= lau hitzaldi emanen dira).

12. *-t(z)en* aspektu ez-burutuaren abusua. Egia da gero eta gehiago erabiltzen direla bertze ikasleen artean ere era honetako esaldiak:

Egiten dugu ariketa!

Idazten dugu koadernoan?

Joaten gara etxera?

Orain etortzen da Imanol (= dator edo etorriko da).

Horrek ez du ezertarako baliotzen.

13. Aditzarekin segituz, forma pronominalen eraginez edo, gaztelaniaz azaltzen diren *me*, *te se* guziak, euskaraz *nor* adizkiez ematen saiatzen dira, zein motatako perpausa den kontuan hartu gabe:

Ongi eramaten naiz Josunerekin.

Ongi erortzen zait Antonio.

Askotan galdetzen gara ea nora joanen garen datorren udan.

Eta hortik bertze hauetara pasatzen hasiak dira:

Liburu bat erosi naiz (= “me he comprado...”).

14. Honekin lotuta, nabaritu dugu, Leitzaldeko ikasleen artean bereziki, \**edin* laguntzailearen ordeaz, \**ezan* erabiltzen hasiak direla, ahalezko adizketan guttienez:

Joan nezake.

Hurbil zenezake.

15. Agintze edo manatze aditzekin ia beti *-t(z)ea* nominalizazioa erabili ohi dute *-tze*ko erabili beharrean eta hau Iruñerriko ikasleek erabiltzeaz gain, euskaldun herritakoek ere egiten dute batez ere Bortzirietakoek:

Etxera joatea esan dio.

Ariketak egitea agindu dio.

Laihoak ongi ixtea esan zigun.

\* \* \*

Laburki bederen aipatuko ditut beste akats tipiko batzuk:

16. *Ablatibo agente* delakoaren kopia edo kalkoa:

Nigmatik idatzia zen paper hura (= nik idatzia...).

Horretaz hila izan zen (= horrek hila...).

17. Gauza bertsua gertatzen da *-tzat hartu*, *-tzat jo...* egiturarekin; erabiltzen ez dutenez, holako kalko bitziak egiten dituzte:

Alferragatik hartu nau.

18. Segi dezagun bertze kalko batzuekin. *Modaz egon*, *parrandaz ibili*:

Modaz dago Oskorriren abesti hori.

Parrandaz ibili ginen asteburuan.

Azterketan txuriz gelditu nintzen eta ez nuen ezer erantzun.

19. *Gaizki usaindu*:

Galtzerdi hauek gaizki usaintzen dute.

Gela honek ongi usaintzen du.

Badirudi zakurrek ezezik, gaurko galtzerdi eta gelek ere badutela usaimena.

20. *Futbolera, pilotara... jokatu:*

Futbolera jokatu genuen arratsalde osoan.

Tesinera jokatu dugu.

Era ez hainbertzeko maiztasunez, baina bai bertze hauek ere:

21. *Zertaz doa?*

Irakurri dudan artikulua sexuaz doa.

22. *Askorengatik irabazi:*

Askorengatik irabazi nuen lasterketa.

23. *Jarri ikustera:*

Telebista ikustera paratu nintzen.

24. *Modu guztiz:*

Modu guztiz, ez dut gehiago hitzik eginen (= edozein moduz...).

25. *Samar, nahikoa... guttitan erabiltzen dituzte. Ia beti pixka bat:*

Pixka bat tontoa da Unai.

Pixka bat txarra da pelikula edo filme hori.

26. *Inor ez, batere ez erran beharrean aunitzetan ezta bat erraten dute:*

—Nor etorri da?

—Ezta bat (ere) (= inor ez).

41 ikasleri hurrengo galdera egin nien:

—Zenbat liburu erosi dituzu?

Bi erantzun hauek aukeran emanaz:

—Ezta bat (ere).

—Batere ez.

% 63k lehenengo erantzuna aukeratu zuten eta % 37k bigarrena.

27. Adizki hipotetikoa arras guttitan ematen dute:

Nire eskutan balego mendira joango nintzen.

Orain janen nuen pastel bat.

28. *Zertan?* eta *nola?* galderak ez dituzte bereizten, bi galderei *-t(z)en* egituraz erantzuten baitiete normalean.

—Nola lortu behar duzu euskara titulua?

—Estudiatzen (= estudiatuz).

29. Nabarmena da *omen* eta *ote* partikula modalen erabilera eskasa.

30. Ahokerari dagokionez, *shandi* edo aldaketa fonetikorik ez dute egiten: ez da, ez dakizu, ez bazara, ez zen, behinik behin, etab.

31. Bukatzeko azpimarratu nahi genuke ikasle hauek euskal lokuzioez duten ezagupen urria, arlo honetan ere hitzez hitzezko itzulpenak erabiltzen baitituzte. Behin bi esakune hauek jarri nizkien 46 ikasleri:

Martintxok begiz jo du Itziar.

Martintxok begitan hartu du Itziar.

% 100ek *begiz jotzea* gaitzestea zela adierazi zuten eta *begitan hartzea* onestea.

\* \* \*

Hauek dira, bada aukeratu ditudan huts edo trakeskeria batzuk. Honen ez du erran nahi guziek garrantzi bera dutenik edo bertze akatsik egiten ez dutenik. Bertzalde, bistakoa da huts hauek ez dituztela ikasle guziek egiten, batzuek nahikoa dexente egiten baitute euskaraz.

Azpimarratu nahi izan dudana zera da, gero eta gehiago zabaltzen ari zaizkigun erdarakada eta huts batzuek ohartaraztea, ahal den neurrian, eredu jatorrago batzuk sartuz edo, arazo honi nolabaiteko konponbidea ematen saiatzeko, ikastola eta eskoletan bereziki.